



MINTZATU KONTSUMITU INPLIKATU

EUSKARAKTIBATU! AIARALDEA



Aiaraldeko Euskararen Eguna ospatuko dute abenduaren 4an

Euskararen erabilera sustatzeko jai handia prestatu du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Luiaondon abenduaren 4an, Aiarako Udalaren eta Kuadrillaren, zein Luiaondoko Administrazio Batzarraren babesarekin. Umeentzako jarduerak, kontzertuak, herri bazkaria, bertsolariak... egongo dira.



Musikaz, bertsoz eta adin guztietarako ekintzez jositako egitaraua aurkeztu dute Aiaraldeko Euskararen Egunerako. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, Gentza Alamillo Aiarako alkateak, Encina Castresana Aiarako Kuadrillako presidentek eta Maite Alonso Luiaondoko Administrazio Batzarreko presidentek aurkeztu zuten eguna azaroaren hasieran, eta orain egin dute publiko behin betiko egitaraua.

Euskaraktibatu! izango da ekitaldiaren leloa eta egun osoko egitaraua ekarriko du Luiaondora. "Eskaintza oparo prestatu dugu, laster ezagutzera emango dugun egitarau zabalarekin: musika, antzerkia, lehiaketak, bertsoak, jolasak, kirola, kultura... Elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean arituko gara. Festa ereiteko baliatuko dugu, etorriko diren erronka berriei bide emanez eta energia bilduz" adierazi du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak. Izan ere, iaz ospakizunik ez zuen prestatu erakundeak, baina

denbora hori hausnarketara bideratu zuen: "Berrantolatu, gogoeta egin eta aurrera begira jarri gara. Gure elkartearen birsortzea eta euskaltzaleon ber-topaketa ospatu gura dugu; zubiak berreraikiz, komunitatea berrindartuz, interpelatuz eta aktibatuz". Erakunde publikoetako ordezkariak garrantzitsutzat jo dute ospakizuna euskararen erabilera sustatzeko eta eskualdea gorpuzteko.

Helburuak

Azken bi urteko etenaldiaren ondoren, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak ospakizuna antolatuko du komunitatea ehuntzen jarraitzeko, aho-zapore ona uzteko eta herritarrek eta eragileak euskararen normalizazioan aktibatzeko. Hain zuzen ere, 'Mintzatu, kontsumitu, inplikatu, *Euskaraktibatu* Aiaraldea' izango da ekimenaren lelo osoa.

Horretarako, besteak beste, herriko ostalaritzarekin eta merkataritzarekin aurre lanketa egiten ari dira, euskararen normalizazioan pausoak emateko

baliabideak eskaini eta bezeroak euskaraz kontsumitzera animatzeko.

Egitaraua

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak abenduaren 4an antolatuko duen ospakizunaren egitarauaren aurkezpena egin zuen azaroaren 20an. Kontseiluko kideek ez ezik, herritarrek eta ordezkari politikoei hartu zuten parte agerraldian, eta 12 orduko programa zabaldu zuten.

Goizeko 11:00etatik gaueko 23:00ak bitartean egongo dira ekintzak Luiaondon. Hala ere, jaialdia lehenago hasiko da: 09:00etan Urdunatik abiatuko dira mendi zein errepede txirrindulariak. Laudion, aldiz, 09:30ean izango da hitzordua.

Hala, 11:00etan batuko da jendea Luiaondon, eta berehala kalejira bi hasiko dira. Batek Otazun izango du irteera eta besteak tren geltokian. Jarraian, umeentzako eta gazteen eskaintzak hartuko dute garrantzia Malatun, non Kokoriko eta Kirikino elkarteek karpak egongo diren jolasekin. Kirolak ere tartea

izango du: 3x3 saskibaloia eta futbito txapelketa antolatuko dute.

Aiaraldea Komunikabideak, berriz, zuzeneko emisioa egingo du; eta Aiaraldeko euskara sortzaileen azoka ere prestatuko dute herrigunean.

12:00etan eta 13:30ean Mikel Martinez antzezlearen Tabernaria bakarrizketa ikusteko aukera egongo da Otuetan Gizarte Etxean. Patxo Telleria da lanaren zuzendaria eta Araban gutxitan egon da ikusgai.

13:00etan, berriz, ekitaldi nagusiaren txanda helduko da. 2016ko Euskararen Eguneraren *remix*-a zabaldu dute horretarako, eta eskualdeko hainbat ikasleren parte hartzea espero da, dantza lantzen ari baitira ikastetxeetan. Horren ostean, herri bazkariaren txanda helduko da. Jarraian hasiko dira kontzertuak, eta gauera arte luzatuko dira.

Horrez gain, 18:15ean Sustrai Colina, Izar Mendiguren Cosgaya eta Julen Zelaieta bertsolariak Luiaondoko tabernetan inprobisazio emanaldiak eskainiko dituzte.

MINTZATU KONTSUMITU INPLIKATU

EUSKARAKTIBATU! AIARALDEA



HEGOALDEKO
SARRERA



TXORITOGIA



MALATO
ZUHAIGZA



KIROL KANGXA
GORRIA



OLETA
GABERNA

ORTUETA
GIZARTE ETXEA



GAZTELEKUA

IPARRALDEKO
SARRERA



IBILBIDEAK

BIDEGORRITIK

ARETA 09:00 kultur etxea

LAUDIO 09:15 tren geltokia eta 09:25 faktorian

AMURRIO 09:30 iparraldeko geltokia

BIZIKLETAZ

URDUÑA FORU PLAZA 09:00 Btt eta 10:00 ERREPIDEtik

TRENEZ

ARRANKUDIAGA 10:15 tren geltokian · 10:24ko TRENA

ARAKALDO 10:15 tren geltokian · 10:28ko TRENA

ARETA 10:20 tren geltokia · 10:30ko TRENA

LAUDIO 10:20 tren geltokia · 10:32ko TRENA

URDUÑA 10:10 tren geltokia · 10:21eko TRENA

AMURRIO 10:15 tren geltokia · 10:27ko TRENA

AMURRIOko geltokian eta 10:28koa IPARRALDEN



AURTENGOKANTA
DESKARGATZEKO QR KODEA!

ABENDUAK 4 LURIAONDO

KIROLA

11:00-13:00 ●
3x3 SASKIBALOI ETA FUTBITO LEHIAKETAK*

13:30 ●
KIROL LEHIAKETAKO SARI EMATEA

*AURREZ IZENA EMAN BEHARRA DAGO, INFO
GUZTIA: WWW.AIARALDEKOEUSKALGINTZA.EUS

AIARALDEA ZUZENEAN

11:00etatik AURRERA
AIARALDEA KOMUNIKABIDEAREN
ZUZENEKO EMANALDIA

EKITALDIA

13:00 ●
EGUNEKO MEZUA ETA KOREOGRAFIAREN
DANTZATZEA AINHIZE SOLAUN ETA IZASKUN
DEL CERROREN PARTE HARTZEAREKIN

MUSIKA ●

15:00 KATEAK ATE (AKUSTIKOA-BERTSIOAK)
16:00 PATXI ETA KONPAINIA (DANTZALDIA)
18:15 MUGAN (POP-FOLK)
19:30 XSAKARA (GRAP)
20:45 IZATE FALTSUA (ROCK-GOGORRA)
22:00 NIKOTINA (RAP-REGGAE-DANCE)

KALEJIRAK

11:00 ●
KALEJIRAK IPARRALDEKO ETA HEGOALDEKO
SARRERETATIK

AZOKA

11:00etatik AURRERA
KULTUR AZOKA

*INFORMAZIO GEHIAGO: LABUR.EUS/AIETE_AZOKA

ANTZERKIA

12:00-12:40 ETA 13:30-14:10 ●
TABERNARIA: INSTRUKZIOAK BOTATZEKO
ONDO KAÑA BAT*

*PATXO TELLERIAK IDATZITAKO OBRA, AKTOREA
MIKEL MARTINEZ.

BERTSOLARIAK ●

18:15 BERTSO POTEOA: JULEN ZELAIETA,
IZAR MENDIGUREN ETA SUSTRAI COLINA

HAUR, NERABE, GAZTE JOLASERA!

11:00-13:00 ●
JOLAS GUNEAREN IREKIERA
• KIRIKIÑOREN JOLAS ZIRKUITUA
• 0-3 URTEKO HAURREN GUNE GOZOA
• GINKANA
• PUZGARRIA

11:30-13:00 ●
BETIKO JOLASAK FAMILIAN (SOKA SALBOA, ZIBA...)

12:00 HERRIKOAN ZEHAR
EUSKARAREN BILA

11:30-13:00 ●
BIDEO LABURREN LEHIAKETAKO SARI
EMATEA (IKASLEETAKO IKASLEEK PARTE HARTU DUTE)

16:00 ●
IHES GELA (3 TXANDA, IZEN EMATEA GOIZEAN IZANGO DA)

“Aiaraldean euskaldunen komunitate bat errotuz doa urtez urte”

AITOR FERNADEZ DE PINEDO
 Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko lehendakaria da. Euskararen Egunean jarritako helburuen eta etorkizuneko erronken inguruan mintzatu gara berarekin.

Zer helbururekin antolatu duzue Luiaondon ospatuko den Euskararen Eguna?

Euskalgintza Kontseiluak kalera ateratzeko apustua egin du aurten, eta horren emaitza da abenduaren 4ean Luiaondon prestatu dugun egitarau zabala. Jai giroan eskualdeko euskal komunitatea saretu eta aktibatzeke xedea du egunak.

Hori dela eta *Euskaraktibatu* leloa aukeratu dugu aurtengo ekimena jantzeko, eta hiru ardatzen baitan egin nahi dugu lanketa: mintzatu, kontsumitu eta inplikatu. Euskaraz mintzatzera, euskaraz sortutako kultur ekitaldiak kontsumitzera eta hizkuntzaren alde aktiboki inplikatuzera bultzatu nahi ditugu herritarrak.

Urte zaila izan da azkeneko hau euskalgintzarako?

Guztiantzako izan da urte zaila, bai. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak ere bere burua berrasmatu behar izan du pandemian. 40 eragilek baino gehiagok osatzen dugu kontseilua, eta ez da erraza horrelako egoera batean denak elkartzea. Horregatik ezinbestekoa da saretzen jarraitzea, eta orain arte lortutakoa balioan jartzea. Argi dugu guztiok batuta eragin handiagoa dugula. Euskararen betaurrekoak jantzi eta gure inguruan ohikoak bihurtu diren gauzak eraldatu behar ditugu.

Ibilbide oparoa egin du Euskalgintzaren Kontseiluak gaurdaino.

Bai, eta balioan jarri behar dugu lortutakoa. Aiaraldean euskaldunen komunitate bat errotuz doa urtez urte, oso gauza polita da hori, zaindu eta sustatu beharrekoa.

Zentzu horretan erakundeen inplikazioa ezinbestekoa da. Oso pozik gaude eskualdeko udalek eta kuadrillak Luiaondoko ekimenarekin erakutsi diguten prestutasunarekin.

Datorren urtea bizia dator euskalgintzan: Korrika, Euskaraldia... Erronkarako prest?

Erronka potolo horiek ingurune hurbilera ekartzea da gure lana. Herri mailan saretu behar ditugu nazio mailako egitasmo horiek, hortan datza hauen arrakasta.

Tresnak ezinbestekoak ditugu egunerokoan eta arloz arlo euskara gure bizitzetan errotzeko: kirol munduan, lan munduan, gazteei begira, adin guztientzako aisialdian, heskuntza komunitate sendo eta bateratuan, etorri berrien komunitatearekin...



35 urtez azpiko ARABARREN ia **%80k** EUSKARAZ ulertzen du

